# VILLANCICOS EUSKAROS.

## GAMBRAKO GAZTEAK

## 1832garren URTEKO EGUBERRI BESPERA GABEAN.[1]

### PASTORELA.

1

Erri, baserri, borda
Soro zelayetan
Chabola, mendi, bide
Bazter legorretan:
Ichasoan, onziyan
Eta chalupetan,
Umore ona da gaur
Lecu guztiyetan.

ESTRIVILLO.

Guazen lasterca, guazen,
Belena contentuz
Soñu eta cantakin
Icustera Jesús.
Atozte, laster, guazen
Pozez Belenera,
Canta ta soñubakin
Jesus icustera.

3

Escallera buru ta
Ate ondoetan
Jendea franco dabil
Agirandoetan:
Eta gu soñubakin,
Alde guztietan
Gelditubaz cantari
Cale cantoyetan.

CORO.

Atozte laster, gustioc ernai,
Irazar bedi bacoitza,
Gaurco gabean zelebratzen da
Jesus onaren jayotza:
Zerutic datoz bakea eta
Atsegiñ, zorion, poza,
Soñuba, canta, tinbal, atabal,
Dantza, ojuba, jolasa.

### ZORTZIKOA.

1

Noche maravillosa,
*Zorionekoa,*
Admirable prodigio
*Zerubetakoa:*
Iris de paz eterna
*Cristabakicoa,*
Origen y principio
*Lege berricoa.*

2

Preñéz inexplicable
*Castidadecoa,*
De Madre virgen pura
*Mancha bagecoa:*
Nacimiento divino
*Ta Jaungoicozkoa,*
Obra incomprensible
*gaur gau erdicoa.*

JOSÉ VICENTE DE ECHEGARAY.

(1) Estos villancicos se cantaron con música del Sr. Delgado.
*Gambrako gazteak* eran indudablemente jóvenes pertenecientes a la música local de los *Gámbaros,* que existia por aquella fecha en San Sebastian, y que tomó su nombre de la palabra euskara *ganbara,* por ser un *desban* el punto de sus reuniones.